



ESTADISTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2018ko 4. hiruhilekoa.

Emitza nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, emandako obra handiko lizentzien kopuruak gora egin du Bizkaian, eta Araban egonkortu egin da; baina 2017ko hiruhileko berdinarekin alderatuta Araban bakarrik egin du gora.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko inkestak agerian jartzen duenez, 2018ko laugarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek guztira obra handiko 814 lizentzia eman zituzten. Emaizta horiek 2018ko hirugarren hiruhilekoan jasotakoak baino handixeagoak dira. Izan ere, 46 lizentzia gehiago eman ziren, eta horrek esan nahi du, datu erlatiboak hartuta, % 6,0ko igoera izan dela. Aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta, aldiz, jarduerak behera egin du: 46 lizentzia gutxiago onartu dira; beraz, % 5,3ko jaitsiera izan da.

Hiruhilekoan, Bizkaian eman dira obra handiko lizentzien % 53,9; guztira, 439 lizentzia. Atzetik doa Araba, 218 lizentziarekin, guztien % 26,8. Gainerako 157 lizentziak, guztien % 19,3, Gipuzkoan eman dira.

EAEko lurralde historikoen artean, 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean Bizkaian ikusten da aldakuntza handiena obra handiko lizentzien kopuruari dagokionez. Lurralde horretan, kontuan hartutako lizentzien kopuruak % 25,1 egin du gora erreferentzia-aldian (88 lizentzia gehiago). Gipuzkoan, aldiz, beherakada nabarmena izan da: aurreko hiruhilekoan baino 43 lizentzia gutxiago, hau da, % 21,5eko beherakada. Arabari dagokionez, emandako lizentzien kopuruak ia berdin eutsi dio 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean; guztira, 1 lizentzia gehiago eman da (+% 0,5).

Urte arteko emaitzak negatiboak izan dira lurralde historiko guztietan, Araban izan ezik. Gipuzkoako lurraldean 30 lizentziako beherakada absolutua egon da 2017ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 16,0ko beherakada erlatiboa egon da. Bizkaian, urtearteko beherakada 24 lizentziakoa izan da, eta epealdiko beherakada erlatiboa, % 5,2. Araban, aldiz, pixka bat igo da emandako lizentzien kopurua; izan ere, 2017ko laugarren hiruhilekoan obra handiko 210 lizentzia eman ziren, hiruhileko honetan baino 8 gutxiago (218 lizentzia, % 3,8ko igoerarekin).

Birgaitzeko obrei lotutako lizentziak nagusi dira oraindik ere

2018ko laugarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia moten** araberako banaketan, mantendu egin da aurreko hiruhilekoetako joera. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehaztasunez, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 84,6 izan dira (2018ko hirugarren hiruhilekoko % 83,9tik eta 2018ko bigarren hiruhilekoko % 82,4tik gora), eraikuntza berriko eraikinetarako % 13,1 izan dira (2018ko hirugarren hiruhilekoko % 13,8tik eta bigarren hiruhilekoko



% 15,3tik behera) eta eraispenetarako, berriz, % 2,2. Kopuru absolutuak honako hauek dira: 689 birgaitze-lizentzia (2018ko hirugarren hiruhilekoan baino 45 gehiago, % 7,0ko igoerarekin), 107 eraikuntza berrikoak (1 lizentzia gehiago, % 0,9ko igoera txikiarekin) eta 18 eraispen-lizentzia, aurreko hiruhilekoko kopuru bera.

2018ko laugarren hiruhilekoan, aztertzen den lurralde historikoa zein den, ezberdin banatzen dira eraikuntza berriko lizentziek eta birgaitzekoek emandako lizentzien kopuru osoan egiten duten zatia. Gipuzkoan, eraikuntza berriak pisu erlatibo handixeagoa du: emandako obra handiko lizentzia guztien % 15,1 eman dira Araban; Bizkaian, % 9,8 Horrek kontrako efektua dauka birgaitzeko obra handiko lizentzietan, eraispenen eragin desberdinaren ñabardurarekin: Bizkaian, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 89,1 dira; Araban, aldiz, proportzio hori % 80,7 da, eta Gipuzkoan, % 77,7.

Taula1. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 4. hiruhilekoa.

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. (Aldakuntza absolutua eta portzentajeak, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2018ko 4. hiruhilekoa.		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	814	100,0	46	6,0	-46	-5,3
	Eraikuntza berria	107	13,1	1	0,9	-39	-26,7
	Birgaituntza	689	84,6	45	7,0	-7	-1,0
	Eraistea	18	2,2	0	0,0	0	0,0
Araba	Guztira	218	100,0	1	0,5	8	3,8
	Eraikuntza berria	33	15,1	-6	-15,4	-10	-23,3
	Birgaituntza	176	80,7	2	1,1	14	8,6
	Eraistea	9	4,1	5	125,0	4	80,0
Bizkaia	Guztira	439	100,0	88	25,1	-24	-5,2
	Eraikuntza berria	43	9,8	0	0,0	-19	-30,6
	Birgaituntza	391	89,1	91	30,3	-4	-1,0
	Eraistea	5	1,1	-3	-37,5	-1	-16,7
Gipuzkoa	Guztira	157	100,0	-43	-21,5	-30	-16,0
	Eraikuntza berria	31	19,7	7	29,2	-10	-24,4
	Birgaituntza	122	77,7	-48	-28,2	-17	-12,2
	Eraistea	4	2,5	-2	-33,3	-3	-42,9

Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitza buruzko Estatistika. 2018ko 4. hiruhilekoa.

2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren arteko epealdian ikusi denez, Gipuzkoan gora egin du eraikuntza berriko lizentzien kopuruak (+% 29,2), baina behera egin du birgaitzeko obrenak (-% 28,2). Araban, aldiz, birgaitzeko lizentziek gora egin



dute (+% 1,1), baina eraikuntza berrikoek, berriz, behera egin dute (-% 15,4). Bizkaian, gorakada erlatiboa esanguratsua izan da birgaitzeko lizentziei dagokienez (+% 30,3), eta eutsi egin zaio eraikuntza berriko lizentzia-kopuruari (+% 0,0).

Urtearteko bilakaerari bagagozkio, Bizkaiak izan du bilakaerarik okerrera eraikuntza berriko lizentzietan, mota horretako lizentzia dezente gutxiago eman ditu eta (-% 30,6), eta ondoren Gipuzkoa eta Araba (-% 24,4 eta -% 23,3, hurrenez hurren). EAE osoa aintzat hartuta, urte arteko aldakuntza negatiboa ikusten da obra berriko lizentzietan; hala, 2017ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 26,7ko aldakuntza erregistratu da, obra handiko 39 lizentzia gutxiago eman baitira.

EAEn, 2017ko laugarren hiruhilekoaren eta 2018koaren laugarrenaren artean birgaitzeko lizentziek bilakaera egonkorragoa izan dute, eta eraikuntza berrikoak baino gutxiago jaitsi dira (-% 1,0 eta -% 26,7, hurrenez hurren). Aldaketa txiki hori Gipuzkoan gertatutako beherakadarekin dago lotuta (-% 12,2), EAeko batezbestekoa baino handiagoa izan baita, bai eta Bizkaian neurri txikiagoan izandakoarekin ere (-% 1). Araba, ordea, tankera horretako lizentzia gehien eman diren lurraldea izan da (+% 8,6).

Metatutako urte arteko datuek erakusten dutenez, igoera egon da EAEn 2018ko laugarren hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruan.

Urteko datu metatu horiek 2018ko lehen hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte; konparatuz gero aurreko urteko hiruhileko berdinen (2017ko lehen hiruhilekotik 2017ko laugarren hiruhilekora) urteko metatuarekin, ikusten da 242 lizentzia gehiago eman direla; hau da, 2017ko epealdi konparagarrian baino % 7,8 gehiago. Igoera txikiagoa da eraikuntza berriko lizentzien kasuan, EAEn % 3,5 gehitu baitira (16 lizentzia gehiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, +% 8,4 (215 lizentzia gehiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopuruak ere gora egin du, % 16,9; hots, 11 lizentzia gehiago eman dira.

Eraikuntza berriko obrei nahiz birgaitze-obrei dagokienez, hiru lurralde historikoetan 2018ko laugarren hiruhilekoko metatutako datuen bilakaerak dinamika positiboa adierazten du, salbu eta Gipuzkoan eraikuntza berrikoari dagokienez.

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, agerian geratzen da EAEn dinamika ezberdinak daudela.

Gipuzkoak gorakada nabarmena izan du azken urtean metatutako lizentzia kopuruan, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta (+% 21,5 egin du gora, 130 lizentzia gehiago eman baitira). Arrazoi nagusia da Gipuzkoan beste lurralde historikoetan baino gehiago hazi dela birgaitzea (+% 27,8). Osera, eraikuntza berriko obra-lizentziei dagokienez, lurralde horretan soilik gertatu da gutxitzea: -% 4,7, 6 lizentzia gutxiago eman baitira.



Taula2. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 4. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 1. hh-tik 2018 4. hh-ra 2018		Metatua 1. hh-tik 2017 4. hh-ra 2017		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.329	100,0	3.087	100,0	242	7,8
	Eraikuntza berria	475	14,3	459	14,9	16	3,5
	Birgaikuntza	2.778	83,4	2.563	83,0	215	8,4
	Eraistea	76	2,3	65	2,1	11	16,9
Araba	Guztira	820	100,0	786	100,0	34	4,3
	Eraikuntza berria	136	16,6	128	16,3	8	6,3
	Birgaikuntza	664	81,0	644	81,9	20	3,1
	Eraistea	20	2,4	14	1,8	6	42,9
Bizkaia	Guztira	1.773	100,0	1.695	100,0	78	4,6
	Eraikuntza berria	216	12,2	202	11,9	14	6,9
	Birgaikuntza	1.530	86,3	1.462	86,3	68	4,7
	Eraistea	27	1,5	31	1,8	-4	-12,9
Gipuzkoa	Guztira	736	100,0	606	100,0	130	21,5
	Eraikuntza berria	123	16,7	129	21,3	-6	-4,7
	Birgaikuntza	584	79,3	457	75,4	127	27,8
	Eraistea	29	3,9	20	3,3	9	45,0


Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 4. hiruhilekoa.

Arabara, 34 lizentziako gorakadak urte arteko gorakada metatua ekarri du, % 4,3ko gorakada, alegia, obra-lizentzien guztizko kopuruan, baina lurralde horretan diferentzia txikiak ikusten dira emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Birgaitzeko lizentziak, urte arteko datuak hartuta, % 3,1 soilik igo dira; eraikuntza berriko lizentzien kopurua neurri handiagoan igo dira (+% 6,3), mota horretako 8 lizentzia eman baitira.

Bizkaian, bestalde, hobekuntza izan da emandako lizentzien kopuruan (+% 4,6). Birgaitzeko lizentziak % 4,7 ugaritu dira urte arteko datuetan (68 lizentzia gehiago), eta eraikuntza berriko lizentzien igoera handiagoa izan da, +% 6,9 (14 lizentzia gehiago eman dira).



Grafikoa1. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2018



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitza buruzko Estatistika. 2018ko 4. hiruhilekoa.

2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN

2018ko laugarren hiruhilekoan hobera egin du bizitegirako diren obra handiko lizentzien kopuruak, baita bizitegitarako ez direnenak ere, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, berriz, bi kasuetan egin da okerrera.

2018ko laugarren hiruhilekoan obra handiko 796 lizentzia eman ziren eraikuntza berriko eraikinak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (616, guztien % 77,4) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zitzaizkien, eta gainerako 180ak, guztien % 22,6, bizitegitarako ez diren erabilerarako proiektuei.¹

Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak (bizitegitarakoak eta bizitegitarakoak ez direnak) bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla.



2018ko laugarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez diren** obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerarako direnak nabarmendu direla (lizentzia guztien % 61,7). Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 28,9 bideratu zen, eta gainerako % 9,4a, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean, ikusten da bizitegi-erabilerako proiektuekin lotutakoek gora egin dutela (+% 6,4) eta gorakada hori txikiagoa izan dela bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentziei dagokienez (+% 5,3).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien gorakada horrek (+% 5,3), 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean gertatua, **industriaren eta energiaren** sektorearekin (15,6%) izan du lotura, batez ere; eta, neurri txikiagoan, **lehen sektorearekin (+6,3%) eta zerbitzu-sektorearekin (+0,9%)**.

2017ko laugarren hiruhilekoaren eta 2018koaren arteko **urteko** konparazioak datu negatiboak ematen ditu bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (-3,0%), eta are negatiboagoak bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (-13,0%).

Taula3. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 4. hiruhilekoa.

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2018ko 4. hiruhilekoa.		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	796	100,0	46	6,1	-46	-5,5
Bizitegia	616	77,4	37	6,4	-19	-3,0
Bizitegia ez dena	180	22,6	9	5,3	-27	-13,0
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	17	9,4	1	6,3	-1	-5,6
-Industria eta energia	52	28,9	7	15,6	-10	-16,1
-Zerbitzuak	111	61,7	1	0,9	-16	-12,6

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 4. hiruhilekoa.

2017ko eta 2018ko laugarren hiruhilekoen artean bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, beherakadak erregistratu dira jarduera-sektore guztietan. Jaitsierarik handiena industriaren eta energiaren sektoreak izan du (-% 16,1); intentsitate txikiagoarekin zerbitzu-sektoreak (-% 12,6) eta lehen sektoreak (-% 5,6).



Urtearteko kopuru metatuetan, gora egin dute bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruak eta bizitegi-erabilerakoenak, nahiz eta atzera egin den industriaren eta energiaren sektorean.

Metatutako urtearteko adierazleen aurreikuspenak positiboak dira bi tipologietan, baina intentsitate desberdinarekin. Hartara, 2017ko laugarren hiruhilekora arteko urtearteko kopuru metatuak (2017ko lehen hiruhilekotik 2017ko laugarrenera artekoak) alderatzen baditugu 2018ko hiruhileko berari dagozkionekin (2018ko lehen hiruhilekotik 2018ko laugarrenera artekoak), ikusten dugu bizitegi-erabilerarako emandako lizentzietan gorakada bat izan dela (+% 9,3) eta bizitegi-erabilerarako ez direnak ere ugartu egin direla –nahiz eta intentsitate txikiagoarekin hazi (+% 2,7).

Taula4. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Metatutako urteko datuak, 2018ko 4. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 1. hh-tik 2018 4. hh-ra 2018		Metatua 1. hh-tik 2017 4. hh-ra 2017		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.253	100,0	3.022	100,0	231	7,6
Bizitegia	2.491	76,6	2.280	75,4	211	9,3
Bizitegia ez dena	762	23,4	742	24,6	20	2,7
-Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	86	11,3	69	9,3	17	24,6
-Industria eta energia	210	27,6	221	29,8	-11	-5,0
-Zerbitzuak	466	61,2	452	60,9	14	3,1

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 4. hiruhilekoa.

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2018ko laugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez, hobekuntza bat gertatu da jarduera-sektore guztietan lizentzien kopuruaren bilakaeran, salbu eta industrian eta energiarenean (-% 5,0). Gorakadarik handiena lehen sektorean gertatu da (+% 24,6); zerbitzuenean, berriz, txikixeagoa izan da (+% 3,1).

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Etxebizitzak eraikitzeke aurreikuspenak hobera egin du aurreko hiruhilekoaren aldean, baina okerrera egin du iazko hiruhileko beraren aldean

2018ko laugarren hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerarako obra handiko 616 lizentziek berekin dakartzate 1.714 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak (aurreko



hiruhilekoan baino 257 gehiago). Etxebizitza horietatik, 1.452 eraikuntza berriko jarduketei lotzen zaizkie (lizentzia guztien %77,7); gainerako 262 jarduketak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira.²

Zehaztu behar da eraginpean dauden eraikuntza berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ahal dituela hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera onartzen diren tamaina handiko sustapenen kopuruaren arabera. Alderdi hori gogoan izanik, gorakada bat detektatu da 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruan (+% 31,9). Ordea, 2017ko laugarren hiruhilekoko kopurua 2018ko hiruhileko bereko kopuruarekin konparatzen bada, ikusten da egoerak atzera egin duela eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenean (-% 9,0).

Beste alde batetik, 2018ko laugarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusten ziren etxebizitzaren kopuruan ere atzera egin dela ikusten da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 26,4), baina pixka bat gora egin du 2017ko hiruhileko berberarekin alderatuta (+% 1,2).

2018ko laugarren hiruhilekoan, **Bizkaia** da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea: guztira, 1.110 etxebizitza daude halako jarduketei lotuta, eta horietako % 87,4 eraikuntza berrikoak dira (970 etxebizitza). Lurralde horretan gora egin du eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruak, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+ % 39,4) bai 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 5,1). Birgaitu beharreko etxebizitzaren kopuruari dagokionez, horien kopuruak ere behera egin du 2018ko hirugarren hiruhilekoari dagokionez (-% 11,4) baina gora egin du 2017ko laugarren hiruhilekoari dagokionez (+% 5,3).

Gipuzkoan, berriz, 349 etxebizitzatarako lizentziak eman ziren 2018ko laugarren hiruhilekoan. Eraikuntza berriko 274 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba positiboa dago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 15,1), baina txarrera egin du 2017ko hiruhileko berdinarekin alderatuta (-% 22,8). Birgaitzeko jardueri dagokionez, aldiz, kontrakoa gertatu da: atzera egin da birgaitzeko diren etxebizitzaren kopuruan, 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta oraingoaren artean garatutako jarduerari dagokionez (-% 42,3), baina hazi egin da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 29,3).

Araban, azkenik, 255 etxebizitzatarako jarduketak erregistratu dira. Gorakada nabarmena egon da 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-eraikinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obra egiten diren. Ukitutako etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira kontuan soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).



aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez (+% 8,5), eta horrek zerikusia dauka azken hiruhilekoan izan den eraikuntza berriei lotutako ekintzen gorakadarekin (+% 24,6); urtearteko bilakaerari dagokionez, berriz, atzera egin da (% 34,6). Beste alde batetik, birgaitzeko jarduketari lotutako etxebizitzaren kopuruak atzera egin du 2018ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (% 30,9), eta berdin aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 30,9).

Taula5. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 4. hiruhilekoa.

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. (Aldakuntza absolutua eta portzentajeak, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2018ko 4. hiruhilekoa.		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.714	100,0	257	17,6	-141	-7,6
	Eraikuntza berria	1.452	84,7	351	31,9	-144	-9,0
	Birgaikuntza	262	15,3	-94	-26,4	3	1,2
Araba	Guztira	255	100,0	20	8,5	-131	-33,9
	Eraikuntza berria	208	81,6	41	24,6	-110	-34,6
	Birgaikuntza	47	18,4	-21	-30,9	-21	-30,9
Bizkaia	Guztira	1.110	100,0	256	30,0	54	5,1
	Eraikuntza berria	970	87,4	274	39,4	47	5,1
	Birgaikuntza	140	12,6	-18	-11,4	7	5,3
Gipuzkoa	Guztira	349	100,0	-19	-5,2	-64	-15,5
	Eraikuntza berria	274	78,5	36	15,1	-81	-22,8
	Birgaikuntza	75	21,5	-55	-42,3	17	29,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 4. hiruhilekoa.

Urtearteko kopuru metatuak aztertuta, ikusten da: birgaitzeari dagokionez, hobera egin da EAEko hiru lurraldeetan, eta, eraikuntza berriko etxebizitzari dagokienez, soilik Gipuzkoan egin da atzera.

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoan izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, **emaitzen urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Eragiketako modu horretan eginda, egiaztatzen da bizitegitarako xedea duen urteko jarduerari, 2018ko laugarren hiruhilekora arte metatutakoa, guztira aurreikusitako 5.582 etxebizitzari eragiten dien jarduketak direla. Horrek esan nahi du % 6,0ko gorakada egon dela (318 etxebizitza gehiago), 2017ko laugarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Gorakada hori batez ere birgaitze-jarduketekin lotzen da, ukitutako etxebizitzaren kopurua % 31,3 handitu baita (270 etxebizitza gehiago).



Eraikuntza berriko jarduketei dagokienez, emaitzen hobekuntza txikiagoa da (+% 1,1; 2017ko laugarren hiruhilekoan, aurreikusitako jarduketek 4.401 etxebizitza ukitu zituzten, eta, 2018ko aldi berean, 4.449 etxebizitza).

Taula 6. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 4. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 1. hh-tik 2018 4. hh-ra 2018		Metatua 1. hh-tik 2017 4. hh-ra 2017		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	5.582	100,0	5.264	100,0	318	6,0
	Eraikuntza berria	4.449	79,7	4.401	83,6	48	1,1
	Birgaikuntza	1.133	20,3	863	16,4	270	31,3
Araba	Guztira	767	100,0	713	100,0	54	7,6
	Eraikuntza berria	539	70,3	514	72,1	25	4,9
	Birgaikuntza	228	29,7	199	27,9	29	14,6
Bizkaia	Guztira	3.234	100,0	2.757	100,0	477	17,3
	Eraikuntza berria	2.674	82,7	2.330	84,5	344	14,8
	Birgaikuntza	560	17,3	427	15,5	133	31,1
Gipuzkoa	Guztira	1.581	100,0	1.794	100,0	-213	-11,9
	Eraikuntza berria	1.236	78,2	1.557	86,8	-321	-20,6
	Birgaikuntza	345	21,8	237	13,2	108	45,6

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 4. hiruhilekoa.

Dinamika orokorra, hala ere, lurralde bakoitzeko portaera desberdinek baldintzatzen dute. Ildo horretan, hiru lurralde historikoek izan dute bilakaera positiboa birgaitzearen arloan. Gipuzkoan urteko kopuru metatuak gora egin du 2017ko eta 2018ko laugarren hiruhilekoen artean (+% 45,6), eta Bizkaian eta Araban, berriz, igoera apalagoa izan da (+% 31,1 eta +% 14,6, hurrenez hurren).

Lurraldeen arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira etxebizitza berrietarako aurreikusitako jarduketei dagokienez. Kasu horretan, ikusten da Bizkaian jarduera nabarmen hobetu dela (+% 14,8). Araban hobekuntza apalagoa da (+% 1,1). Gipuzkoan, aldiz, % 20,6ko beherakada izan da 2018ko laugarren hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatua, 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta.



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

a. Oin berriko obra. Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitze-obra. Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispén partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.

Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren



ganean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.

- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obra.

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2018ko 4. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN.....	6
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	8
ALDERDI METODOLOGIKOAK	12

Taulen aurkibidea

Taula1. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 4. hiruhilekoa.	3
Taula2. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 4. hiruhilekoan	5
Taula3. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 4. hiruhilekoa.	7
Taula4. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Metatutako urteko datuak, 2018ko 4. hiruhilekoan	8
Taula5. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 4. hiruhilekoa.	10
Taula 6. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 4. hiruhilekoan	11

Grafikoen aurkibidea

Grafikoa1. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2018.....	6
--	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estadistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxa: +34-945-01 98 56

WEBGUNA: www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak

www.euskadi.eus/ingurumen-estatistikak

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/

Helbide elektronikoa: estadísticas-vivienda@euskadi.eus